

RACISMOMATON

www.racismomaton.org



La Fábrica de Cosas Bonitasko **idea** bat

OKUPGRAFek ekoiztua

Tel: 620 80 99 51

organizacion@okupgraf.net

La Fábrica de Cosas Bonitas eta Okupgrafek **"RACISMOMATON"** proiektua aurkezten dute. Funtsean, Photomaton kabina bat da, eta barruan, ordenadoreko joko baten bitartez, erabiltzaileak etorkinenganantz dituen jarrera arrazistak detektatzen dira.

RACISMOMATON

La Fábrica de Cosas Bonitasko idea bat, **Okupgrafek** ekoiztua

Proiektu honek fotomaton antzeko tresna bat diseinatzeko eta eraikitzeko helburua du. Ordenagailu joko honek adieraziko du erabiltzaileak etorkin arrazarekiko zein jarrera duen. **RACISMOMATON**ekin makinak gizakia ordezkatzeko du, makinak berak erakutsiko baitizkio arrazakerirekiko dituen jarrera izkutukoak.

Instalakuntza erraza da : -kabina autonomo konputarizatu jarriko da kalean eta nahi duenak, bost minutu baino tarte txikiagoan, etorkinei buruzko bere barne jarrerak ezagutu ahal izango ditu.

Tresna hau garatzeko hiru arrazoi izan dira:

➤ **ARRAZAKERIA.** Etorkinekiko arrazakeria egoera berri samarra da Espainian honako hiru zio hauengatik; batetik orain arteko bolada migratorioak txikiak izan direlako, bestetik desberdintasunarekiko hezkuntza landu ez delako, eta azkenik, gobernu erabat kontserbadoreek etorkinekiko erakutsi duten borondate ezagatik. Gainera, proiektuaren egileoi iruditzen zaigu konzienteki arrazista direnak albo batera utziz,- ez baititugu aintzat hartzen- badela jendea jarrera arrazistak dituen konturatu gabe (alegia, arrazista inkonzienteak) eta jarrera aldatzeko prest egongo litzatekeena hausnarketa kritiko baten ostean. Horixe da hain zuzen ere, RACISMOMATONen helburua, pertsona hauei gaian pentsaraztea.

➤ **INTIMITATEA.** RACISMOMATONen helburua ez da azterketa soziologiko bat egitea. Hausnarketa pertsonala du xede, horregatik intimitatea zaintzen du testa egin bitartean. Prozesuak- nor bere baitan makinak erakusten dionarekin- gune pribatu bat behar du, emaitzak egileari bakarrik ardura zaizkiolako. Hori da kabinak duen kortinaren betekizuna, beharrezkoa den intimitatearen adierazgarri izatea.

➤ **IA TESTA (IAT).** RACISMOMATONen bitartez IA testak egiten dira. Hauek 1998an sortu zituzten Washington eta Princentongo unibertsitateetako soziologoek. Test honek neurtzen ditu pertsona baten ñabardura inkontziente xeheenak eta estereotipo eta aurriritziak,hauek direlako jarrera arrazisten oinarrian dauden elementuak. Testaren mekanismoa oso xumea da, joko bat da non ordenagailuak egindako, eta itxuraz arrazakeriarekin zer ikusi handirik ez duten, galdera batzuk bi botoi sakatzuz erantzun behar dira. Testak bost minutu baino gutxiago irauten du eta emaitza berehalaxe azaltzen da pantailan. Ezaugarri hauei esker orain arte ikertutakoen artean egokiena dirudi. **RACISMOMATON b.2ak** jatorrizko IA testari bertsio egokitu bat eskaintzen dio, Donostia, Bartzelona,edo Madril bezalako hirietan erabili ahal izateko.

IBILBIDEA

Racismomaton "Donostia mundu artean" elkartasun jaialdiaren barnean abiatuko da, bide hau egiteko asmotan:

Abendua 10-17	EHUko I.M. Barriola eraikina.
Abendua 15 - urtarrila 9	Okendo Kultur Etxea
Abendua 18-28	Urdaneta kalea (KM Kulturuneko ataria)
Abendua 29 - urtarrila 9	Gipuzkoa plaza (Diputazioko arkupeak)
Urtarrila 10-20	Antiguako Super Amara (Zumalakarregi hiribidea)
Urtarrila 21-31	Garbera merkataritza zentroa
Otsaila 1-8	Zurriola pasealekua (Kursaaleko ataria)
Otsaila 9-16	RENFEren geltokia (nasak)
Otsaila 17-24	Kale Nagusia (Kursaal kasinoko ataria)
Otsaila 25 - martxoa 4	Zarategi pasealekua (TXARA-Ieko arkupeak)
Martxoa 5-13	Pio XII.a plaza (Amara-Plaza hotelaren ondoan)
Martxoa 14-22	Easo plaza (Euskotrenen geltokia)
Martxoa 23-31	Zuloaga plaza (Principe zinemako ataria)

Gero, 2005eko udaberrian, beste hainbat herritara joango da, Gipuzkoan, Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, eta Estatuan barrena.

Babesleak:

- ◆ Eusko Jaurlaritza – Etxebizitza eta Gizarte Arazoetako Saila – Inmigrazio Zuzendaritza
- ◆ Gipuzkoako Foru Aldundia - Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua
- ◆ Donostiako Udala – Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Tolerantzia Arloa.

Laguntzaile bereziak:

- ◆ Arteleku.
- ◆ Tecnotron.

Laguntzaileak:

- ◆ Euskal Herriko Unibertsitatea (Gipuzkoako Kampusua).
- ◆ Okendo Kultur Etxea.
- ◆ KM Kulturunea.
- ◆ Super Amara.
- ◆ Centro Comercial Garbera.
- ◆ Kursaal Elkargunea.
- ◆ RENFE.
- ◆ Casino Kursaal.
- ◆ Euskotren.
- ◆ S.A.D.E.